

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako ostalaritza sektorearentzako diru-laguntza deialdia 2021

Udal osoko bilkurak 2021eko urriaren 14an egindako saioan honako hau erabaki zuen:

- Zuiako ostalaritzako jarduerari eta enpleguari eusteko 2021eko ekitaldirako laguntza-deialdia eta laguntza horien oinarri arautzaileak onartzea.
- Aipatutako diru-laguntzak 2021eko gastuen aurrekontuko 439.471.020 partiden barruan kokatzea.
- Aipatutako deialdia ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berriazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2021eko urriaren 18an

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIERREZ URKIZA

2021EKO ZUIAKO OSTALARITZA SEKTORERAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN DEIALDIA ETA OINARRIAK

HITZAURREA

COVID-19aren ondoriozko pandemiak sortutako osasun krisiaren ondorioz, 2020ko martxoaren 14an ezarritako alarma egoerak egoera sozioekonomiko larria eragin du, eta oro har populazio osoari eta zehazki ostalaritzaren enpresa sektoreari eragin dio.

COVID-19ak ezarritako geldialdiaren ondoren, eta osasun agintariek ahalbidetzen joan diren heinean, jarduera ekonomikoei berrekin zaie tokian-tokian; jarduera batzuk lehen zeuden bezala mantendu dira, beste askok berrasmatu egin behar izan dira, baina guztiek egoera berrira egokitu behar izan dute.

Urte honetan aztergai dugun sektorea itxi ez bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurriek, hala nola ordutegiak, edukiera eta intzidentzia-tasa metatuaren arabera lurralde historikoen eta udalerrien arteko igarotze-muga eragina izan dute establezimenduetan. Pandemia hau arintzeko helburuarekin, kasu askotan ixtera behartu duelako edo diru-sarreraren maila jaitsi delako, batez ere perimetroko itxieren ondorioz, tokiko sektore ekonomiko hori suspertzea ahalbidetuz, laguntza hauek proposatzen dira.

Hori dela eta, beharrezkotzat jo izan da ezohiko programa baten antolaketa, ahal den neurrian, ostalaritzaren sektoreak jasaten duen ziurgabetasun-egoera eta etengabeko aldaketak arintzera bideratutako jarduerak ahalbidetzeko, eta horrela, etorkizun hurbilean datozen erronkei erantzun ahal izateko.

1. Objektua

Deialdi honen helburua da ostalaritza sektorean tokiko ekonomia suspertzeko laguntza ekonomikoak ematea, jarduera nagusia ostatu duten establezimenduei neurri handiagoan lagunduz, horrela aurre egin ahal izateko COVID-19ak sortutako krisiak eragindako inpaktuetatik eratorritako ondorioei eta horrek sortutako inpaktua minimizatuz. Horrek, Zuiako ostalaritza-sektorearen jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasun dimentsioa mantentzea lagunduko du.

2. Finantzaketa

Eman beharreko laguntzak finantzatzeko gehienez eskura dagoen kreditua 40.000 eurokoa da. Eman beharreko laguntzen bolumena guztira ez da izango aipatutako esleipena edo esleipen horren eguneratzea- indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu aldaketak onartzen badira- baino handiagoa.

Onartutako gehieneko kreditua agortuz gero, proportzionalki hainbanatuko da epigrafe berean dauden onuradun guztien artean.

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2021eko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 439.471.020 partiduen kargura egingo dira.

3. Laguntzaren onuradunak

Diru-laguntza hau jaso ahal izango dute beraien kontura lan egiten duten pertsona fisiko edo autonomoek edo enpresa eta sozietateek, haien forma juridikoa edozein dela ere, 2021ean COVID-19 delakoaren ondorioz ostalaritzan eta ostatu establezimendu eta zerbitzuetan hartu izan diren neurriek haien gain eragina izan badute, betiere haien jarduerak honako talde haue- tan sailkatuta badaude:

671. taldea. Jatetxeetako zerbitzuak.

673. taldea. Kafeak eta tabernetan, janariarekin eta janaririk gabe.

681. taldea. Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua.

683 taldea. Hostoetako ostatu zerbitzua eta ostalari etxeetan eta nekazaritza ostatu turistikoak.

685 taldea. Hotelez kanpoko turismo-ostatuak eta landa-etxeak.

4. Pertsona eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Norberaren konturako langilea edo autonomia edo pertsona juridikoa izatea.

– Norberaren konturako langilea edo autonomia bada, dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean alta emana izatea 2021eko urtarrilaren 1ean eta gaur egun jarraitu (diru-laguntzaren eskabidea aurkezteko eguna).

– Pertsona juridikoa bada, alta emana izatea Gizarte Segurantzaren araubidean edo dago- kion mutualitatean 2021eko urtarrilaren 1ean eta jarraitu gaur egun.

– Diru-laguntzaren eskatzaileak martxan dagoen establezimendu bat izan behar du Zuian eta ostalaritza jarduera ustiatu behar du.

– Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Zuiako Udala eta Kontseilu eta beste administrazio batzuekin zorrik ez izatea.

- 2021eko urtarrilaren 1ean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emana izatea, aipatutako edozein taldeetan eta gaur egun jarraitzea.
- Diru laguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotako debekurik ez izatea.
- 2021eko urtarrilaren 1etik jarduera egiten aritzea inolako etenik gabe.
- Jarduerari eustea gutxienez sei hilabetez diru-laguntza emateko ebazpena ematen den egunetik.

5. Eskabidea aurkezteko epea eta modua

Eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da ALHAOn deialdia argitaratu eta hurrengo egun ofizialetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskabideak eta dokumentazioa Zuiako Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira Udalak emandako ereduaren arabera, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek eskatuko zaizkie autonomoei, enpresei eta sozietateei:

- Ezarritako eranskinaren araberrako laguntza-ekonomikoa.
- Erantzukizunpeko adierazpena, eskabide-ereduaren arabera.
- Autonomoen ordainagiriaren kopia urtarritetik eskabidea aurkezten den egunera arte.
- Eskatzailearen NANaren kopia, pertsona fisikoa ez izatekotan.
- Eraketa eskritura eta estatutuak, elkarteen kasuan dagokion erregistroan inskribatuta, eta eskatzailearen IFKren kopia edo, hala badagokio, ahalduaren NANA (gainera, ahalordetze eskrituraren kopia aurkeztu beharko da).
- Diru-laguntza ordaintzeko banku-kontuaren zenbakia.
- Jarduerarekin lotutako gastu arrunt edo estrukturalen egiaztagiria (autonomo kuota, tokiko errenta (betiere etxebizitzaren zati bat ez bada) edo hipotekaren ordainagiria, argiaren, uraren, zaborren, aholkularitza fiskalaren eta langileen zuzeneko kostuen ordainagiria, 2021ari dagozkionak). Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2021eko urtarrilaren 1etik laguntza eskatu den egunera arte fakturatu eta ordaindutakoak, baldin eta diruz lagunduko jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote.

Eskabideak aurkezteko orduan baldintza hauek bete beharko dira:

- Jarduera eta establezimendu bakoitzeko laguntza eskaera bakarria aurkeztu ahal izango da, baldin eta entitatearen eta eskatzailearen salmenta-gune edo zerbitzu-gune bakarria Zuiako udalerrian badago.
- Ez da arau hauetan ezarritako eskabideak aurkezteko epea bukatzean jasotako eskabiderik onartuko.
- Egiaztatzen bada eskatzaileak aldatu edo faltsifikatu egin duela aurkeztutako dokumentazioa, kasu horietan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37.artikuluan ezarritakoa aplikatuko da., eta hala badagokio, zigor-legerian ezarritakoa.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 28.2 artikulua arabera, administrazio jarduleak kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu dagoeneko bere esku dituen edo beste Administrazio batek egindakoak, interesdunak horren aurka egiten ez badu.

Udalak zuzenean bildu ahal izango ditu beste administrazio batzuetatik eskatzailearen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren datuak, Nisae (Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa) datuen bitartekotzarako plataformaren zerbitzuetatik, zehazki hurrengoko hauek:

- Arabako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Kontsulta ezin bada datuen bitartekotza-plataformaren bidez edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez egin, dagokion dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari, salbuespen gisa.

Interesdunek beren datu pertsonalak kontsultatzeari aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango dute, berariaz adierazita. Interesdunak bere datu pertsonalak kontsultatzeari aurka egiteko eskubidea baliatzen badu, dagokion dokumentazioa erantsi beharko du, eta, aurkeztu ezean, eskabidean atzera egin duela ulertu ahal izango da.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo instruktoreak eskatzaileari eskatuko dio gehienez hamar egun balioduneko epe luzaezinean akatsa zuzentzeko, eta adieraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 21.artikuluan aurreikusitako moduan.

Organo instruktoreak edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria diru-laguntza hauen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

6. Datuen babesa

Datuak babesteko indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie egoki den eskaeraren bidez ematen dituzten izaera pertsonaleko datuak eta diru-laguntzen izapideetan edota laguntzak eman ondorengo kudeaketan zehar emandako dokumentazio guztia barne hartuko duela Zuiako Udalak, tratamenduaren erantzule eta kudeatzaile gisa. Tratamenduaren helburua da eskaera kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde egindako funtzioa betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubideen Oinarriena eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen orokorra.

7. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du, inolaz ere, Zuiako Udalaren aurrekontu orokorrean helburu horretarako aurreikusitako partidetan esleitutako zenbatekoa gainditu.

Jarduera eta establezimendu bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da, egiten diren jardueren (epigrafe) kopurua kontutan hartu gabe.

Ostalaritza-sektorearen barruan 2021ean inpaktu handiena izan duen jarduera ostalaritza izan da eman diren perimetro-itxituen ondorioz; hori dela eta, erabaki da laguntza handiago bat ematea horri.

Zenbatekoak epigrafeen arabera finkatu dira:

| | |
|---|-------------|
| 671.taldea. jatetxeetako zerbitzuak | 1.500 euros |
| 673.taldea. kafeak eta tabernak, janariarekin edo janaririk gabe | 1.500 euros |
| 681.taldea. Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua | 3.000 euros |
| 683. taldea. Hostoetako ostatu zerbitzua eta ostalari etxeetan eta nekazaritza ostatu turistikoak | 3.000 euros |
| 685.taldea. Hotelez kanpoko turismo-ostatuak eta landa-etxeak | 3.000 euros |

8. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo diru-laguntza batzuk ere eskura daitezke, baina betiere onuradunak zinpeko aitortpena bidali beharko du beste diru-laguntzarik jaso dituen edo ez adierazteko.

Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, jasotako zenbatekoa eta administrazio emalea adierazi beharko dira, eta, halaber, datu horiek egiazkoak direla egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da, jasotako laguntzen guztizkoak diru-laguntzaren zenbatekoa gaindi ez dezan.

9. Diru-laguntzak emateko prozedura

Laguntza hauek modu zuzenean ematen dira, Diru-laguntzei buruzko Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2c) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, aipatutako Legearen 28. artikuluen 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoari dagokionez, eta horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 67. artikuluekin. eta lege horren erregelamendua onartzen duen ezarritakoaren babesean, interes ekonomiko, sozial eta humanitarioko aparteko arrazoiak gertatzen baitira.

Ebazpen honetan araututako diru-laguntzak bereziak dira, prozedura hori eragin duten gertakariak salbuespenezkoak eta bakarrak direlako. Diru laguntzen xedea berariazkoa denez, beharrezkoa da modu zuzenean ematea hauek norgehiagorik gabe.

10. Eskabideak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eskabideak eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da Udalean ordezkariak duten udal-taldeetako kideek osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin-betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak emango du, eta, alkatea, ebazpen arrazoitu baten bidez behin-betiko onartuko du diru-laguntza hori ematea.

Ebazpena diru-laguntza jaso duen pertsona edo agente eskatzailearen izena eta gainerako eskabideen ezespina jaso beharko du, gutxienez. Era berean, ebazpenean interesdunei jakinaraziko zaie ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak, bai eta errekurtso horiek zein organo judizialaren aurrean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epeak. Nolanahi ere, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioak arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998ko Legearen 8.artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren aurka zuzenean aurkaratzen ez bada, aukera izango dute ebazpena eman zuen organoaren aurrean errekurtsoa jartzeko, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

11. Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzak ordainketa bakar baten bidez ordainduko zaie onuradunei, diru-laguntza ebatzi eta eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Ezin izango da diru-laguntzaren ordainketa egin onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzultzeko prozeduraren ebazpen bidez zordun baldin bada.

12. Erakunde onuradunaren betebeharrak

Onuradunen betebeharrak dira:

- Diru-laguntza jarduera garatzeko erabiltzea.
- Perimetro-itxiera amaitu zen egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezian alta emanda egotea.

– Organo edo erakunde emailearen aurrean justifikatu ahal izatea eskatutako betekizun eta baldintzak betetzen direla, edo prozeduraren instrukzio-organoari horiek egiaztatzeko baimena ematea.

– Diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraztea bestelako laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo beste baliabide batzuk lortu dituela. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin behar da.

– Diru-laguntza eman duen organoak egin beharreko egitaztapen-jarduketei men egitea, bai eta estatuko zein Europako Erkidegoko kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egitaztapeneko eta kontroleko beste edozein jarduerari ere, eskatzen zaien informazio guztia emanaz.

– Arau hauetan eta Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

– Laguntza justifikatzen duten dokumentuak gordetzea.

13. Diru laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

14. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

15. Arau-haustek eta zehapenak

Diru-laguntzen arloko arau-hauste administratibotzat hartuko dira diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituzten ordenantzaren IV. kapituluan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren erregelamenduan zehaztutako ekintzak eta ez-egiteak, eta horietan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

16. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta haren erregelamenduan xedatutakoa beteko da.